

## IRIZPIDE OROKORRAK JANTOKIKO LANGILEENTZAT

1. Jankideak jantokian sartzean, mahai tresnak, ogia, eta ura topatuko dituzte txukun mahaiaren gainean. (Elkartean)
2. Ume bakoitzari menua osoa emango zaio.
3. Jatera ez behartu, ANIMATU.
4. AUTONOMIA landu ( mahai tresnaren erabilera, mahai zapiaren erabilera, eskuen garbiketa ...)
5. AHOTS DOINU egoki bat (ez oso altua ez oso baxua) erabili haurrekin hitz egiterakoan.
6. Haurraren IZENA erabili lotura afektiboak eta emozionalak indartzeko.
7. Hizkuntza eredugarri eta hezigarri bat erabili “umeen hizkuntza” EKIDITUZ (“txitxi”, “a papa”...) (diminutiboak)
8. EUSKARAREN erabilera bultzatu.
9. Jatea oinarrizko eskubide bat da. Ez da erabiliko ez sari ez zigor moduan.
10. Haurren arteko diferentziak errespetatu, erritmo eta izaera desberdinak dituztelako.
11. Haurrekiko harremanak hurbilak, konfiantzazkoak, enpatikoak eta errespetuzkoak izan. Eredugarri izan.
12. Zorrotz eta arduraz zaindu uneoro jankideak.
13. Lan giro atsegina lortzeko eta lan eginkizunak errazago betetzeko, kooperazioz eta laguntasunez jokatu.
14. Arazoen aurrean **ikuspegi hezitzailea** erabili.

Haur hezkuntzako jangelan bukaera ordua 13:50 inguru izango da haurrek gelara joan aurretik jolasteko tartetxea izan dezaten.



## JANKIDEEK ERRESPETATU BEHARREKO OINARRIZKO ARAUAK

1. Jantokian modu egokian sartuko naiz.
2. Ahots normalaz hitz egingo dut, guztiok ulertu ahal izateko, sekula ez oihukatuz.
3. Mahai tresnak ganoraz erabiliko ditut. Ez naiz haiekin jolastuko.
4. Txukun eta modu egokian bazkalduko dut.
5. Janariarekin ezin dut jolastu.
6. Ezer behar dudanean, begiraleari eskatuko diot zuzen eta oihukatu gabe.
7. Atsegina eta esker onekoa naiz. Mesedez, eskerrik asko ..., erak erabiliko ditut.
8. kurtso osoan zehar toki berdinean eseriko naiz bazkaltzeko eta bazkaria amaitu arte neure aulkian dagokion moduan eserita egongo naiz. (Elkartean)
9. Bai gure artean bai begiraleekin Euskara harreman hizkuntza izango da. (Ahal den guztietan)
10. Jantokiko **langile guztiak** errespetuz tratatuko ditut eta esandakoari kasu egingo diot.
11. Jantokiko kide guztiak errespetuz tratatuko ditut.
12. Denetarik jaten saiatu behar da, gutxienez probatu (kutxarakada bat, burruntzali bat, zati bat .)
13. Higiene ohiturak zainduko ditut bazkaldu aurretik eta ondoren (eskuak garbitu ... )
14. Eskolako gune guztietako erabilera zuzena egingo dut: komunetan, pasilloetan, patioetan,...
15. Jantokiko orduetan ezin da jangela edo jolas eremutik atera; ez bada guraso, tutore edo jangelako arduradunaren baimenarekin.
16. Patinak, bizikletak eta antzekoak ez ditugu jangelara eramango.

